



Fredrik LERNERYD | AFP

IKUSMIRA

BOLI TRAFIKOAREN KONTRAKO BORROKAREN BESTE ADIBIDE BAT

Kenyako Gobernuak isileko ehiztariei aurre egiteko erabakia hartu du. Apirilaren 30ean, legez kanpo ehi-
zatutako animaliei erauzitako 105 tona boli eta 1,35
tona errinozero adar erre zituen. Egun historikoa izan
zen askorentzat, izan ere, Kenyan ez zituzten sekula
hainbeste tona boli erre. Ekimen horrekin, mafien kon-
tra aritzeko konpromiso irmoa erakutsi nahi izan du Uhuru Kenyatta presidentek. Berak piztu zi-
tuen boliz osatutako tontorrak Nairobiko Parke Nazionalean. «Boliaren legez kanpoko merkatarit-
zak gora egin du eta izugarrizko sarraskia eragin Erdialdeko Afrikan. Marfil suntsiketarekin gure
ondarea ezin dela diru truke saldu ozen esan nahi dugu», azaldu zuen Kenyattak. Gabongo pre-
sidente Ali Bongok ere esku hartu zuen ekitaldian. «Isileko ehiztarien, erosleen eta trafikarien
asmoekin amaituko dugu», nabarmendu zuen. 2012an 384 elefante hil zituzten Kenyan letagi-
nak kentzeko, 2015ean, berriz, 96. Aurrerapausoa eta albiste ona. A. Lertxundi